



Pil-pilean

FORNOLUZA

Soraluzeko hilabeteakaria
2024ko iraila · 414. alea

LOREA DE CASTRO
ETA ELISA LABAIEN
**JARDUERA
FISIKOA LAGUN**





PIL-PILEAN 414

2024ko iraila

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|--|
| 4 | Elkarrizketa Eulogio Mancebo | IRITZIA |
| 6 | Begira Bisaurin mendira | 3 Neuretik Jondar Plata
<i>Dopaminaren truk</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 16 Gutunak Maria Isabel Ormazabal
<i>Soraluzeko bizilagunok horrelako
tratua merezi dugu?</i>
<i>Ane Orbea Gure herri maite zikina?</i> |
| 14 | Argazki bidez Mesedeetako jaiak | 16 Komiki tira |
| 18 | Erreportajea Elisa Labaien eta
Lorea de Castro jarduera fisikoaz | 17 Hausnarketa Baduzu edo izan
duzu jarduera fisikoa egiteko
ohiturarik? |
| 23 | Kultura Munduko ipuinen topaketa | 17 Puntua Leire Peñalba <i>Engainu
kolektiboa</i> |
| 26 | Kirola Kirolzaletasunak gora | |
| 28 | Sakonean Ramon Barrutiabengoa
eta Juan Ramon Aristi margolariak | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak,
oroitzak, iragarki laburrak... | |



**Pil-pilean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilpilean.eus

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZKO
UDALA**

Dopaminaren truk



JONDAR PLATA

Azkar, fast, rápido, veloce... Zurrumbilo baten barruan goaz, ez dugu atzera begiraten ezta ia alboetara ere ez. Aisialdiarekin ez da ezberdin. Gure barneko gosea asetzeko dopamina tanta berri baten bila etengabe.

Hurrengo Reel-a, modako serie berria, irratian behin eta berriz azkenengo single-a, beste istorio bat. Erritmo azkarrean goaz, denok konturatzen gara horretaz, badakigu eta onartzen dugu. Gehienetan ez baitaukagu beste irtenbiderik. Lanean gaudenean ezin burua altxatu, etxera heltzerakoan mila gauza egiteko, afaldu eta berriz hasierara, ostirala heltzeko gogoz.

Algoritmo eta web gune bakoitzeko cookiek gure aisialdia menperatzen dute. Erabakitzeke gaitasuna galdu dugu, eta gehienetan ez gara konturatzen ere. Hori iruditzen zait arazorik handiena.

Konturatzerakoan beste bideo berri bat hasi da, aukeratu ez duzuna, baina algoritmoak guk gure burua baino hobeto ezagutzen gaituenez, hor zaude interesik ez duen zeozer ikusten adi-adi.

Musikarekin are okerrago. Iragarkiz beteriko plataforma doakoak, kantak aukeratzen lagatzen ez dutenak. Ordaintzera behartzen gaituzte gustuko kantez gozatzeko. Hori ez zait okerra iruditzen, behar bada. Plataforma nagusiek sortzaileei bueltan ordaintzen dioten diru kopurua miseria bat dela da arazoa. Multinazional batek sortzaile eta ekoizleek sortutakoaren etekin gehienak bereganatzen ditu.

Egoera hau kontuan hartuta, errazena izango litzateke teknologia berriak, sare sozialak, bideo/musika plataformak eta horrelakoak desinstalatzea. Horrek sortzen dituen arazoak ere balantzan jarri behar dira. Ez dugu nahi lagunek kobazulo batean bizi garenik pentsatzerik, ezta azken gertakariaren berri ez izaterik ere.

Bakoitza bere aisialdiaren jabea da. Kirola, kultura edo ezer ez egiteko gogoak pertsonalak dira. Gure denbora librea non erabili eta zertan pasatzen dugunaren erabakia propioa izan beharko litzateke. Multinazional baten algoritmoak gure denbora gobernatzen duen heinean, gure denbora bere etekinetarako zuzentzen du. Gure denbora beren denbora bihurtzen da, guk hain preziatua dugun denbora libre hori oparitzen dugun bitartean dopamina pixka baten truk.

**EZ DUGU NAHI
LAGUNEK KOBAZULO
BATEAN BIZI GARENIK
PENTSATZERIK**

“Ni naiz azken dinosauroa nirea moduko kargu batean”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI TXURRUKA

Eulogio Mancebo Iranzo (Elgoibar, 1963) udaltzainburuak erretiroa hartuko du datorren urriaren 23an, bere urtebetetze egunean. 33 urtez udaltzain izan da Soraluzen eta 2022ko irailetik udaltzainburu ere bai.

Zelan zaude erretiro bezperan?

Lasaitasunez. Gogoz ere bai. Baina lanean ere pozik egon naiz, horregatik luzatu nuen urtebetez. Nire ordezkapena erabaki gabe zegoen, ikusi nuen ekipo gazte bat zegoela, gogo berriekin zetorrela, eta neu ere horrekin kutsatu egin nintzen. Gure handicap-a izan da denbora gutxian jende asko pasatzen ari dela Udaltzaingotik. Egunerokoa ikasten dutenerako joan egiten dira.

Hori zergatik gertatzen da?

Legez, jendea lan-poltsatik eskatu behar dute. Zerrenda hori Erandion daukate. Han lehen postuan dagoena bidaltzen dute, berdin da nongoa den. Orain, adibidez, daukagu Errasti Gasteiztik datorrena, Iker Astigarragatik eta Rakel Bilbotik (azken hori dagoeneko joan da). Hilero gastu handia suposatzen die hona etortzeak eta beste zerbait topatzen dutenean joan egiten dira. Horregatik nik diot ni naizela azken dinosauroa nirea moduko kargu batean. Munizipal bat bizitza osoan herri berean, jende guztia ezagutzen... ziklo hori bukatu da.

Izendatuta dago zure ordezkoa?

Bai. Baina Arkauten 9 hilabeteko ikastaroa egin behar du. Berak ikastaro hori bukatuko du ni joan eta 5 hilabetera. Denbora horretan hutsunea egongo da. Eta gero, behin etorrita ere, denbora beharko du hemengoa ikasteko. Egokitu arte, urtebete-edo pasatuko da. Bestalde, Bilbokoa da eta Ertzaintzarako hautagai, beraz... Dena den, ez dakit bera izendatuko duten udaltzainburu ala udaltzain bakarrik.

Zelakoa izan da udaltzainburu moduan izandako esperientzia? Eta udaltzain modura?

Bietan ondo. Adibide modura, Elgoibarren lanpostua ateraz gero, harako aukera izango nuke, baina ez naiz ezta aurkeztu ere egin hemen gustura nengoelako. Udaltzain moduan, beti pentsatu izan dut jendeari laguntzea zela gure lana eta hori eginda, etxera lasai joaten nintzen eta lasai lo egiten nuen. Udaltzainburu moduan, berriz, jendeari laguntzeko bidea zen herriko gauza guztiek ondo funtzionatzea eta hemendik koordinatzen nituen. Polita izan da ere bai, baina okerrrena da ardura, erabakiak hartu behar dira, kale edo bale. Momentuan. Eta ardura zeurea da. Tentsioa sortzen du. Ni egon naiz gustura epe motzerako zelako. 20 urtez udaltzainburu izateko aguantatu egin behar da.

Zer egin zaizu gogorrena? Eta errazena?

Istripu batzuk. Errazena, berriz, kalean ibiltzea, ze jendea espontaneoki etortzen da laguntzera.

Zelako oroitzapena eramango duzu Soraluzetik? Eta soraluzetarrengandik?

Ni ya soraluzetarra naiz. Oso pilota zalea naiz eta tokatu izan da Elgoibarren herri arteko lehiaketa eta ni joan eta soraluzetarrak animatu, hemengo pilotariak ezagunagoak direlako niretzat.

Urte hauetan bizitakoetatik, zer da lehenengo burura datorkizuna?

Zenbat aldatu den herria. Asko aldatu da populazioa. Garai batean bizpahiru etorkin bakarrik zeuden eta guztiak ezagutzen genituen. Gaur egun eroldara jo beharra dugu begiratzeko zein den. Hori batetik; eta bestetik, tailer txikiak itxita egotea eta taberna askoz gutxiago izatea.

Udaltzaingoa, berriz, zelan ikusten duzu?

Aldaketa gehiegi denbora gutxian. Baliabideak ere behar baino gutxiago ditugu. Adibidez, udaltzain modura, egokiena da bikoteka lan egitea eta horretarako lan-taldeak ez du ematen. Egokiena litzateke bost langile. Udaltzainburua eta lau agente, beti lanean binaka egon ahal izateko.

Erretiratu eta zer egingo duzu?

Argazkilaritza berriro ere hartu, hizkuntzak... Ingelesa indartu nahiko nuke. Bizikleta elektrikoa ere erosi dut.



Bisaurin mendira igoera

ARGAZKIA: MIKEL RECIO IRUSTA

TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Plaentxia.eus atariaren Udako Argazki Lehiaketako argazki irabazlea Mikel Reciok ateratakoa da. Kontatu duenez, kuadrillako bidaietan, argazki gehien ateratzen dituenetakoa bat da bera, lehiaketara aurkeztutakoa kasu. "Aragoiko Pirinioetan, Hecho Aranetik gertu, Lizarako mendi-aterpetik Bisaurin mendira igotzeko bidea da, azkenetariko aldapetan. Ivan Ayora da argazkian agertzen dena, alboko bide batetik zihoan, mobila atera eta asko pentsatu gabe ateratako argazkia da".

Akaso Mikel Reciok ez zuen asko pentsatuko argazkia ateratzerako orduan,

baina zerbait ondo asko egin du, lehiaketan jasotako 250 argazkien artean, berau aukeratu baitu Juan Fernandez eta Arkaitz Arana argazkilariek eta Pil-pilean Komunikabideko lan taldeak osatutako epaimahaiak. Ondorengo ezaugarriak nabarmendu zituzten: "Konposizio aldetik, oso ona. Argiari dagokionez, kontrargi ederra da eta saturazio gutxikoa. Gainera, mendiko tematika argazki askotan ageri da eta argi dago bat datorrela udako lehiaketarekin. Horrez gain, argazkia kalitate onekoa da".



PUBLIZITATEA

Armendi Jatetxea

Sukalde
tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan
menu berezia
Karta
Burduntzian
erretako bildotsa
Ettxeko fritoa
Souflea
Tel.: 943 75 10 02



OKELIA HARATEGIA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko ganadua
- Ettxeko tripaiki, txistorra, saltxitxa eta mingaina

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hanburgesak,
ogitarteak,
razioak,
pizzak,
gosaria...
Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 89



MABEL ILEAPAINDEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89



IZAGUIRRE Igeltseritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformak • Era guztietako igeltseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913




MENDIZABAL okindegia

Ogia • Prentsa • Gosariak

Astelehenetik
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Kontulan

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontulan.com



Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak
1910etik zabalik

Arraindegia, janaria,
erropak, etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45



ARRANO
taberna

Etorri eta gozatu
etxeko pintxoak

Etxaburueta 6



BOLIA
TABERNA

Pintxoak, ardoak,
konbinatuak
Gazte-giroko festa



KM design
Kiru Muntalak

943 76 99 85

kirumuntalak@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amillaga 5
BERGARA

- Diseinu eta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Logelak
- Zoruak
- Ateak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak



SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

676 556 817 • 943 75 21 38



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika,
punta-puntako teknologiekin lan
egiten dugu. Cad-Cam sistema
berritzailea erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
Mug.: 747 42 78 19
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) • 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



Bidelagun euskaltzaletasunean



aras



laibi
ELECTRICIDAD

Ikastea debalde

LAGUNTZEI ESKER, EUSKALTEGIAN IKASTEA DEBALDE DA GEHIEN-GEHIENENTZAT

TESTUA EGOITZ UNAMUNO

Soraluzeko Euskaltegiak aurki ekingo dio 2024-2025 ikasturteari, eta hori dela eta, euskalgintzako eta Udaleko ordezkariak agerraldia egin dute aurtengo eskaintzaren berri eman eta herritarrek ikastera animatzeko. Aurreko ikasturteetan bezala, aurtengo ere maila guztiak eskainiko dituzte, aurrez aurre nahiz autoikaskuntza bidez. Gainera, Soraluzeko Udalak euskaraz ikasteko eskaintzen dituen laguntzei esker, Soraluzen, praktikan, debalde izango da euskaraz ikastea. Matrikula zabalik da irailaren 30era arte.

Maila guztietako ikastaroak

2024-2025 ikasturtean, Euskaltegiak eskaintza "zabala" eskainiko du euskaraz ikasteko. Maila guztietako ikastaroak eskainiko dituzte, A1tik hasi eta C2raino. Zehazki, ondorengoak dira eskainiko diren ikastaroak: Euskalduntze orokorra (aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza): A1, A2, B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak; Xede bereziko ikastaroak: Gurasoak, etorri berriak, dendari/ostalariak; Hizkuntza eskakizunak betetzeari bideratutakoak: IVAP, HABE, Osakidetza.

Praktikan, debalde

Udalak euskaraz ikasteko ematen dituen laguntzei esker, ikasle gehienek %100eko



Udaleko, Pil-pileaneko eta AEK-ko ordezkariak euskaltegian. EGOITZ UNAMUNO

dirulaguntza jasotzen dute eta ondorioz, praktikan, herritar gehienek euskaltegian debalde ikasteko aukera dute. Dena den, salbuespen bat, izan ere, laguntzak errentaren arabera dira eta laugarren mailako errenta dutenen kasuan, laguntzek matrikularen kostuaren %50eraino estaltzen dute baina azken horien kasuan ere, guraso edo dendari direnek, %100eko laguntza jasotzen dute. Beraz, praktikan, herritar gehien-gehienek doan ikasteko aukera dute euskaltegian.

Izen-ematea

Izen-ematea egin edo ikastaroak buruzko informazio gehiago lortzeko zuzenean euskaltegira

jo daiteke (liburutegi parean): astearte, asteazken edo ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Telefonoz ere deitu daiteke 943 75 11 43 zenbakira, goizez zein arratsalde. Horrez gain, informazio guztia kontsulta daiteke AEKren webgunean. Hurrengo ikasturterako matrikulatzeko epea irailaren 30ean (astelehenean) amaituko da.

**MAILA GUZTIAK
ESKAINIKO DITUZTE
EUSKALTEGIAN,
A1-ETIK HASI ETA
C2-RAINO**

Carpinteria MANU Aroztegia

Ateak
Bentakak
Pordakak
Sukaldeak
Tatamak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrena - Mug. 636 05 81 25

Mimor

Ilusipaindegia
Exterika
Solariuma

Galdakoz 4. beheko - Tel.: 943 75 13 13 - 682 31 14 04

ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA

arrunta
dekoratiboa
industriala

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbata: 08:30-13:30
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia,
gerra, pastakak,
borboka...
Ebera eramateko
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

HNOS. BENITO ANIAK

MUEBLES-ALTZARIK

Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurria egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

Belarrak

lana eta
belardenda

Elikagai
ekologikoak
Etterako zerbitzua

Santa Ana 22
943 75 30 11

MGS Seguros

Veronica Gallarraga
Gertukoia eta segurua

Astelehenetik ostiralera:
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30
Santa Ana 13
645 744 055

ODRI

ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako
leihoen,
pertsianak,
ateak, barandak
salmenta eta
konponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Bogor Erreka Kalea 2 - 20090 SORALUZE
e-mail: odrilhoak@gmail.com

Criado

Fruitategia Undategia

- Erikarguak Whatsapppe
- Etterako zerbitzua
- Berriak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbata: 09:00-13:00

629 918 536

GOKI

erreformak

FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA

ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MAINTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK

BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK

IRISGARITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
O KOTA

BULEGO TEKNIKOA

ERAKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZURTAGIRAK
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

Mugikorren erabilera aztergai

'JASO BURUA SORALUZE' EKIMENAK HAINBAT EKINTZA ANTOLATUKO DITU

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA ZANGITU

Jaso Burua Soraluze ekimenak mugikorren erabileraz jarduteko hitzaldi-tailer irekia antolatu du urriaren 8rako (martitzena), Miren Ros bidelagunarekin. *Mugikorrak. Zergatik bai, zergatik ez?* tailerra LH4-5 eta 6 urteko ikasleen gurasoei zuzenduta dago. Elebitan eskainiko dute, euskaraz zein gaztelaniaz eta izen-ematea aurki zabalduko da, Whatsappez zein Plaentxia.eus atariaren bidez. Tailerra, arratsaldeko 18:00etan hasiko da, Tolarekuan.

Mugikorra erosteko adina

Jaso Burua Soraluze ekimenak iaz abiarazi zuen bere ibilbidea, gaztetxoan artean pantailek duten gehiegizko erabilera, zein erabilera okerra mugatzeko helburuz. Abiapuntu modura, ondorengo mezua adostu nahi dute gurasoen artean: "atzeratu seme-alabei mugikorra erosi edo oparitzeko garaia ahalik eta gehien". Ez dute adin konkreturik zehaztu, baina taldetik esplikatu dutenez, kontsigna da ahalik eta gehien atzeratzea seme-alabek mugikorra izateko adina.

Gurasoen portaera gako

Ane Ugalde Jaso Burua Soraluze ekimeneko partaideak esplikatu duenez, zentzu horretan, ikusi dute familiak barneratzen ari direla seme-alabei mugikor



Jaso Burua Soraluzeko kide Ane Ugalde eta MirenRos bidelaguna iazko hitzaldian.

propioa ez erostearen mezua. Baina era berean, uste dute oraindik "lan pedagogiko handia" dagoela egiteko eta "kontzientziazioan berde" gaudela. Horretara bideratuko dituzte, hain justu, taldearen "lan ildorik garrantzitsuenak". Horrekin batera, uste dute gurasoen portaera oso garrantzitsua dela: "Ezin dugu ahaztu guk mobilarekin daukagun erabilera umeentzat irakaspena dela".

Gipuzkoako Altxa Burua

Bestalde, Ugaldek jakinarazi du irailean, Jaso Burua Soraluze Gipuzkoako Altxa Burua taldean saretu dela eta indarrak batuta, datozen hilabeteetan herrian ekimen gehiago egingo dituztela. "Han gauza asko ari dira bultzatzen. Adibidez, orain, herrietan zabalduko dute

eskaera orri bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Osasun sailei eskatzeko esparru horietan erabilera arautu dezaten. Asmoa da pertsona bakoitzak bere eskaera aurkeztea erakundeei, gutun modura. Gipuzkoako Altxa Buruak bideratu du ekimena eta Bizkaia, Araba eta Nafarroako Altxa Burua elkarteak ere elkartu dira; haiek ere horretan dihardute lanean". Horrekin batera, besteak beste, sinadura bilketa bat egingo dutela ere aurreratu du.

**JASO BURUA
SORALUZE TALDEA
GIPUZKOAKO ALTXA
BURUA TALDEAREKIN
SARETU DA**

Auto elektrikoak bogan

AUTO ELEKTRIKOEN SALMENTA GORANTZ DOA MUNDUAN

Iraunkortasunaz eta karbono-isuriaren murrizketaz gero eta kontzienteagoa da gizartea eta ibilgailu elektrikoak etorkizuneko mugikortasunerako irtenbidetzat nabarmentzen ari da. IEAk, Nazioarteko Energia Agentziak, emandako datuen arabera, ia hamalau milioi auto elektriko saldu ziren munduan, aurreko urtean baino %35 gehiago. IEAren kalkuluen arabera, 2030erako merkatu gehienetan prezio baliokideak izango dituzte errekontzako autoak eta elektrikoak eta 2035erako hiru autotik bi elektrikoak izango dira.

Zenbat auto elektriko mota daude merkatuan?

Gaur egun, darabilten teknologiaren arabera, hiru ibilgailu elektriko mota nagusi daude merkatuan: Ibilgailu elektriko purua/bateriaduna, autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (errekontza motor txiki bat du bateria kargatzeko) eta ibilgailu hibrido entxufagarria (propulsio elektrikoak eta konbentzionala uztartzen ditu).

Zenbat balio dute?

Espainiar estatuan, lau plazako auto elektrikorik merkeenak 18.000 euro ingurutan saltzen dira, batzuek bestekoa, berriz, 34.000 euroren bueltakoa da. Baina auto elektrikoaren kostua



Auto elektrikoentzako kargalekua Azitaingo industrialdean (Eibar). DKT

kalkulatzeko garaian, beste hainbat faktore ere hartu behar dira aintzat, hala nola, erregaia eta mantentze-lanak. Erregaiari dagokionez, auto elektrikoaren 100 km-ko kostua 2-3 euro ingurukoa da eta gasolinazkoarena, berriz, 9-12 euro bitartekoa. Mantentze-lanen kostua ere dezent txikiagoa da auto elektrikoaren kasuan, gasolinazkoa, diesela edo hibridoa baino, %29, %21 eta %25ekoa, hurrenez hurren. Hortaz, hasierako erosketaren gainkostua 6-7 urtean amortizatu daiteke.

2025ERA KO HIRU AUTOTIK BI ELEKTRIKOAK IZANGO DIRA, IEA-REN ARABERA

Zer nolako autonomia du?

Modeloa eta bateriaren arabera da. Halaber, modelo berrienek karga bakoitzeko 250-500km bitarteko autonomia izan ohi dute.

Zenbat kargaleku daude Debabarrenean?

Auto elektrikoentzako kargalekuak daude bailaran, besteak beste, Eibarren Azitaingo gasolinera eta industrialdekoa edo Mercadona, Eroski eta Aldi supermerkatuetakoa edota Repsol gasolinera eta Mercadonakoa Elgoibarren.

Kargaleku publikoak, pribatuak eta komunitarioak

Kargalekuak erabilera publikoko lekuetan daude eta edozeinek erabil ditzake baina, oro har, auto elektrikoak gauze eta etxean kargatzen dira.



Ibilgailuen kargen % 90-95 garaje partikular edo komunitarioetan egiten da, ahal dela, gauez, elektrizitatearen kostua txikiagoa delako.

Karga-puntu pribatuen kasuan, instalazioa 750-1000 euro bitartean kosta liteke. Kargalekua komunitarioa denean, berriz, kasuistika askotarikoa da eta aukeratu den instalazio motaren arabera aldatzen da kostua. Debegesak Ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioaren inguruko eskuliburua diseinatu zuen. Gida honen helburua da auzo-komunitateetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioen prozesuari eta inplikazio nagusiei buruzko informazioa ematea, horiek aplikatzeko egin beharreko urratsak zehaztuz.

Diru-laguntzak

2021ean Espainiako Gobernuak Moves III plana onartu zuen auto elektrikoaren erosketak eta kargagailuen instalazioak diruz laguntzeko eta deialdia 2024ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean. Kontsultatu laguntzak Energiaren Euskal Erakundearen webgunean.

**DEBABARRENEAN 12
KARGALEKU ELEKTRIKO
DAUDE, ZORTZI
EIBARREN ETA LAU
ELGOIBARREN**



Aitziber Cortazar, Lorea Esnal eta Maria Otamendi. DKT

Energia Bulegoa debabarrenderaren zerbitzura

Duela hiru urtetik martxan da Debabarreneko Energia Bulego Birtuala, 2030 Agendaren baitan, bailaran energia berriztagarrien erabilera indartzeko helburuz. Bertan, aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen diete herritarrei nahiz enpresei, debalde.

Energia berriztagarrien arloan dauden aukerak (fotoboltaikoa, termikoa, geotermia, aerotermia, biomasa...), teiltatua birgaitzeko moduak edo berogailu sistemak, kontsumoa eta fakturak optimizatzeko bideak eta energiari lotutako beste hamaika konturen berri ematen dute. 2021etik 70 kontsulta baino gehiago erantzun dituzte eta 100 herritar eta enpresa baino gehiagori lagundu diete instalazioak bideratzen edo kontsumoa murrizten.

Online eta presentzialki

Bulegoak goizero eskaintzen du zerbitzua, online, telefono bidez edota presentzialki. Informazio gehiago Debegesaren webgunean edo 943 82 01 10 zenbakira deituta.



"Giro ederrean"

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO, ANDER GOMEZ ETA UBANE MADERA

Aurten ere arrakastatsu joan dira Mesedeetako jaiak, Txurrukenekoak, gehientsuenen ahotan. Antolaketa batzordetik esan zutenez, "ahal den neurrian, denen gustoko ekintzak ipintzen" saiatu ziren, berritasunak tarteko, eta "herriari esker" -komertzioak, Udala, herritarrak.... "giro ederrean" bukatu zituzten hiru eguneko jaiak. "Era eta adin desberdinetako jende andana" bildu zuen Errekaldeko plazak. Auzo-nortasuna indartuta, uda aurretik hasten dira auzokoak jaiak prestatzen eta auzotarrak zein kaletarrak, guztiak erakartzen dituzte Errekaldeko plazaren bueltan antolatzen diren ekintzetara zein hango txosnara. Aurtengoak eginda, datorren urtean gehiago.





GUTUNAK

Soraluzeko bizilagunok horrelako tratua merezi dugu?

MARIA ISABEL ORMAZABAL

Irailaren 14an, zapatua, sei plazentziatar autobus publikoan Donostiara joan ezinda geratu zirela-eta, E.M. herritarrak aurkeztutako salaketa babesten dut neuk ere. Kaltetuetako bat izan nintzen. Eta salatu nahi dut, baita ere, autobusa bakarrik lau lagunendako lekuarekin etorri zela Soraluzera. Lotsagarria da hori. Gainera, Eibarrera joan ahal izateko, ordubetea egon ginen geltokian zain eta ez zen autobus bat bera ere pasatu. Azkenean, Mendaroko autobusean Elgoibarrera joan izan behar genuen, han ordu erdi baino gehiagoan itxaroten egon eta Donostiara ailegatu ginenerako 2 ordu eta 15

minutu pasatu ziren.

Dagokionari: Soraluzeko bizilagunok horrelako tratua merezi dugu? Espero dut neurriren bat hartzea eta GARRAIO PUBLIKOAREN arazoa konpontzea.

Gure herri maite zikina?

ANE ORBEA

Abuztu osoan oporrak ditudanez eta herrian denbora asko igarotzeko asmoarekin, banabil bertan buelta ugari ematen. Paseatzen gora eta behera, ezker eta eskuin. Agian, jendea kanpoan dagoelako eta herritar gutxiagorekin gurutzatzen naizelako, ba, kaleko bazter guztietara begira geratzen naiz. Zigarro mutur, txakur kakak, txiza arrastoak hormetan, lokal hutsak utzikerian amaraunez eta zabor

hautsez josita, pipa azalak jarleku inguruetan... Oraintxe bertan berritu eta ireki berri den kanoi fabrikako aterpean latak, plastikozko botila eta paperak. Egia da zaborrontzirik ez dagoela. Gure Plazentzia, gure herritxoa, polita ez izan arren, badugu halako enkantu berezi bat, baina hain zikin, hain gaizki tratatua... txerrikeria demasa! Irudikatzen dut herrixka zibilizatu bat, txukuna, garbia eta zaindua. Ezinezko amets bat izango ote?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Baduzu edo izan duzu jarduera fisikoa egiteko ohiturarik?

Gero eta gehiago bultzatzen da jarduera fisikoa egitea

**ANTONIO FULGENCIO**

"Egunero egiten ditut 10 kilometro oinez; Mekolalde baino haruntzago, bidegorritik. Zapatuan eta domekan, berriz, txikiteoa. Beti paseatu izan dut eta ondo egiten dit ze ez dit ezerk molestatzten. Orain, berriz, ezin dut, baina karerra bat gustura egingo nuke".

**ESTHER IÑURRIETA**

"Uste nuen egunerokoarekin nahikoa zela, etxera nekatuta heltzen bainaiz. Baina medikuak esan dit zerbait egin behar dudala, ze hezurretatik min handiekin-eta nabil. Osintxura joaten hasi naiz. Olako makinetan ere gelditzen naiz. Ea ohitura moduan hartzen dudana".

**MARIAN BEGIL**

"Mendira noa egunero eta batzuetan igeri egitera. Lehenago, berriz, aerobic, step... denetik egin izan dut. Hobeto sentitzen naiz eta asko gustatzen zait kirola egitea. Orain, nahiko nuke aerobicarekin jarraitu, baina hemen ez dago".

**IÑAKI SORALUZE**

"Orain bizikletan eta mendian ibiltzen naiz, bietan. Astia daukatenean joaten naiz, baina sarri. Beti egin izan dut zerbait. Lehenago pilotan, palan, frontenisean, eskian... ere ibili izan naiz eta bizikletan, berriz, beti. Gustura nabil orain egiten dudanarekin".

PUNTUA

**LEIRE PEÑALBA****Engainu kolektiboa**

Gaur egun, "postureoa" errealitatea desitxuratzen duen praktika arrunta bihurtu da. Praktika baino, beharra. Fenomeno horrek sare sozialetan norberaren irudi idealizatua eraikitzea dakar, eta, horren ondorioz, hainbatek baliozkotze-bilaketa etengabea egin behar izan dute. Plataformak, benetako esperientziak partekatzeko espazioak izan beharrean, bizi perfektuen eta zoriontsuen erakusleio bihurtu dira, non besteak txunditzeko intentzioz, argitalpen bakoitza arreta handiz diseinatzen den. Esaterako, portaera horiek argi eta garbi ikusi ditzakegu argazkien lehiaketetan.

Jokaera horiek etengabeko konparazio giro toxikoa ere sortzen dute. Benetakotasuna baloratu beharko litzatekeen mundu batean, postureoak ilusioa eta azalkeria sustatzen ditu. Adibidez, zure oporren argazkiak sare sozialetara igotzen ez baldin badituzu, ez zara oporretara joan. Triste da bai, baina azken finean denok elikatzen dugun mundua ere bada. Zein puntutaraino gara kontziente errealitatea pantailetatik kanpo dagoela ikusteko?





Lorea de Castro eta Elisa Labaien bidegorrian

"Jarduera fisikoak ongizate fisiko eta mentala ematen du"

LOREA DE CASTRO ETA ELISA LABAIEN

Jarduera fisikoak gero eta garrantzi handiagoa du gure egunerokotasunean. Frogatuta dago pertsonen osasunean onura handiak dituela, arlo fisikoan, psikologikoan zein sozialean, eta horren jakitun, handitzen doa egunero edo ia egunero jarduera fisikoren bat egiten dutenen kopurua.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi Txurruka**.

Elisa Labaienek (Bergara, 1938) eta Lorea de Castrok (Soraluze, 1984) aspaldi dute jarduera fisikoa egiteko ohitura euren bizimoduetan txertatuta. Labaieni "satisfazioa" ematen dio eta jarduera fisikoa egin ondoren, "barruko poza" sentitzen du. Lorea de Castrok, berriz, esaldi borobila bota du: "Zure eguna ez da okertuko kirola egin eta gero, hobetu egingo da, beti".

Egunero egiten duzue jarduera fisikoa?

Elisa Labaien (E.L.): nik igeri egiten dut eta Osintxura buelta. Igerian astelehenetik barikura eta Osintxutik buelta egunero, domeketan ere bai.

Lorea de Castro (L.C.): nik egunero ez. Eskailerak igo, 10.000 pauso eta hori bai; baina kirola asteen hiruzpalau aldiz saiatzen naiz egiten, batzuetan bost bider egiten dut eta bestetan bi. Denetik egiten dut, urte sasoiaren arabera. Udan, gehiago mendira, bizikletan, eta neguan, gehiago barruko ariketa fisikoa, batez ere, gimnasiora.

Zergatik igerian, Elisa? Zelan hasita?

Beti gustatu izan zait. Baina ez nuen aukerarik izan eta ez nuen igerian egin inoiz. Beldur handia nion urari. Baina ikasteko gogoia neukan. 49 urterekin, kiroldegia zabaldu zenean, ikastarora apuntatu nintzen. Gogorra zen, baina behin irakasleak esan zidan: *behin, harraskan itoko zara zu*. Ez zitzaidan batere gustatu hori. Eta berotasun horrekin, beldurra kendu egin

zitzaidan. Eta beldurra kentzen baduzu, igerian ikasten duzu. Harrezkero segi egin diot.

Eta ez duzu bestelakorik egin izan?

70 urterekin ibili nintzen bizikletan bizpahiru urtean. Nire alabak bi bizikleta zahar laga zituen garajea eta galdetu nuen ea ibili nintekeen. Baietz esan eta Bergarara joan-etorria egiten ibili nintzen bizpahiru urtean. Gaztetan pixka bat ibilitakoa nintzen. Urte asko neuzkalako laga nuen. Pentsatzen zitzaidan larregi zela niretzat. Urte asko ibili barik eta... lartxo pentsatzen zitzaidan eta oinezean segitu nuen. Eta bestela, ibili beti egin gara; gizona ez zen geldi egotekoa eta orduan gehiago ibiltzen ginen mendian-eta. Ni bakarrik ere ibili naiz. Zenbat bider egin ote dudan Txurrukako buelta... Beti gustatu izan zait.

Zu, berriz, zelan iritsi zinen gimnasiora, Lorea?

Indar ariketak egitea gustatzen zait. Badaude batzuk aspertu egiten direnak gimnasioan, baina nik oso gustura egiten dut. Eta mendian eta bizikletan ere gustura ibiltzen naiz. Gimnasioan nire kabuz hasi nintzen. Irakurrita, informazio pixka batekin, teknika zaintzen, bestela min hartzea oso erraza da. Hasi nintzen banekielako osasunarendako garrantzitsua zela masa muskularra, batez ere, emakumeen kasuan, adin batetik aurrera osteoporosia prebenitzeko garrantzitsua zela. Horrez gain, orain kiroldegiak ikastaroetarako eskaintzen duen tarifa lauari esker, pilates eta cross training



Lorea de Castro gimnasioan, pesekin.



Elisa Labaien igerilekuan.

ere egiten dut eta orain dantzan ere eman dut izena.

Bizikletarekin mendian, gimnasioan indar ariketak... korrikan ere ibilitakoa zara...

L.C. Bai, egin izan dut nire bizitzako beste momentu baten, baina ez dut gustuko. Egin izan ditut karrera batzuk, mendiko motzak ere bai, baina ez dut disfrutatzen korrika. Kirol motak tartekatzen joaten naiz. Batekin aspertzen naizenean bestearekin hasten naiz eta horrela. Tarteka betidanik egin izan dut kirola. Orain, jarraian, 12-13 bat urte daramatzat kirola egiten. **Aukera izango bazenute, gustura probatuko zenuketen kirol bat.**

E.L. Nik, dagoeneko probatuta ditudanak.

L.C. Nik neguko biatloia. Hori da hondoko eskia eta karabinarekin punteria egitea. Neguan hori ikusten dut Eurosporten, oso gustura ikusten dut. Praktikatzeko, berriz, igerian ondo ikastea ondo legoke. Nire buruarendako erronka, etorkizunerako.

Zuentzat zer da jarduera fisikoa edo kirola horren sarri egiteko?

E.L.: satisfazioa handia. Barruko poza.

L.C.: fisikoki hobeto sentitzen zara kirola egin eta gero, baina mentalki ere bai. Eta gainera, lagunekin egiten baduzu, plus hori ere badauka. Ni, adibidez, mendira bakarrik joaten naiz, baina lagunekin ere bai.

Adina dela-eta, oso errealitate desberdinak bizi dituzue. Elisa, zure kasuan oso ezohikoa izango da norbait (emakume edo gizon) kirolari izatea, ala?

Neuk beste bat bakarrik ezagutzen dut, Lore Alberdi. 91 urte ditu eta lehen astean lau bider etortzen zen igerilekura. Orain, astean hiru bider, ederra meritua! Baina nire adinekorik ez dut beste inor ezagutzen, ez emakumerik, ezta gizonik ere.

Egin izan dizue komentariarik zure adina dela-eta kirola egitearren?

Esan izan dizkidate gauzak: *Horrek, igeria-eta gazteen gauzak dira.* Eta nik esan nion: *nik usatzen dut zuk eta nik premina handiagoa dugula.*

Denendako ona da, baina guretzat gehiago.

Igartzen duzu desberdintasunik jarduera fisikoa egitearren Elisa?

Nik esango nuke baietz. Errazago ibiltzen da. Pereza gutxiago mugitzeko. Adibidez, egunero kalean ibiltzeko zalea ez naiz, baina asteburuetan pixka bat irtetea beti gustatu izan zait. Bestela irten, horrelako gauzetara irteten naiz, ibiltzera, igeri egitera... Hori eginda, gustura geratzen naiz. Burua ere hobeto egoten da.



Elisa Labaien.

"ELISA: KIROLA EGITEAK SATISFAZIO HANDIA EMATEN DU, BARRUKO POZA"

"LOREA: FISIKOKI HOBETO SENTITZEN ZARA KIROLA EGIN ETA GERO, BAINA MENTALKI ERE BAI"

"ELISA: KIROLA EGITEN BADUZU, ERRAZAGO IBILTZEN DA ETA PEREZA GUTXIAGO DAGO MUGITZEKO"



Lorea de Castro.

"LOREA: JATEN ETA ARNASTEN DUGUN MODUAN, MUGITU EGIN BEHARKO GINATEKE"

"ELISA: ANBULATORIOAN GOMENDATZEN BADUTE, EGONGO DA AINTZAKOTZAT HARTUKO DUENIK"

"LOREA: GAZTEEK ERREFERENTE PUBLIKOAK IZATEA OSO GARRANTZITSUA DA"

Lorea, zure inguruan, berriz, kirola ohikoagoa da. Baina ohikoagoa beharko zukeen izan?

Niri adinarengatik ez didate komentariorik egin izan, baina bai generoaren inguruan. Adinean aurrera joan ahala, gero eta sedentarioago bihurtzen gara eta horri buelta ematea gehiago kostatzen da. Nire adin bueltako neska asko ez dut ikusten kirola egiten. Akaso jendeak etxean ere egingo du. Baina espazio publikoetan, gimnasioan, pesak egiten dituzten gehienak gizonak izaten dira, gero eta emakume eta neska gazte gehiago ikusten da, baina oso espazio maskulinoa da, uste dut hor badagoela zer aldarrikatu ere bai.

Hortaz, emakume izateak badu eraginik kirola egiterakoan?

Bai, baina ez motibo biologikoengatik, sozialengatik, baizik. Emakume gutxiagok egiten dugu kirola gizonak baino, horren atzetik motibo desberdinak daude eta bakoitzak berarekin jakingo ditu baina sozialki, seguru aski, genero rolen pisu potente bat egongo da. Eta erreferente publiko falta ere badago.

Zuri zer ematen dizu kirolak?

Ongizate fisiko eta mentala. Zure eguna ez da okertuko kirola egin eta gero, hobetu egingo da, beti.

Jarduera fisikoa egitea, bada, gomendagarri ikusten duzue.

E.L. Nik gomendatuko nuke, baina egiten ez dutenek beste zerbait pentsatuko dute-eta... Gauzak desberdin ikusten ditugu. Animatu egingo nituzke, hala ere.

L.C.: Nik uste dut denok egin beharko genukeela, jaten eta arnasten dugun moduan, mugitu egin beharko ginateke.

Zerk lagunduko luke jarduera fisikoa gehiago bultzatzen? laztiak, adibidez, anbulatortik gomendatzen diete hainbat pazienteri, lantoki batzuetan gimnasioak daude...

E.L. Azpiegiturak eskura izateak asko laguntzen du. Anbulatorioan jarduera fisikoa egin beharra dagoela esatea jendearendako abantaila dela pentsatzen dut, batzuei akordatu eragingo die eta beste batzuen kasuan, ba han esanda, beti egongo da jendea aintzakotzat hartzen duela.


L.C. Kirola egiteko gomendioa osasun arazo batengatik bada, askoz ere erosoagoa eta errazagoa da pilula bat hartzea, horrek ez duelako esfortzurik suposatzen. Elikadura zaintzeak edo ariketa fisikoa egunero egiteak, berriz, esfortzua

suposatzen du eta jende asko ez dago hori egiteko prest, hala ere, oinarria hori izan beharko litzateke. Lantokietan espazioak egokitzea edo deskantsuak jarri ahal izatea ariketak egin ahal izateko, adibidez, ondo egongo litzateke. Gazteen kasuan, erreferente publikoak eduki ahal izatea oso garrantzitsua da ere. Telebistan dagoen kirola oso maskulinoa da. Azken urteotan, zorionez, pilotan-eta hasi dira emakumeen partidak emititzen, futbolean ere bai, baina orain dela gutxira arte emakumeen kirola olinpiadetan bakarrik ikusten zen, lau urtean behin. Hobetzen goaz, baina oraindik lan handia dago egiteko.

Kirola osasunarengatik ere egiten duzuen moduan, baduzue bestelako ohiturarik osasuna zaintzeko?

E.L. Jana zaintzea asko gustatzen zait.

L.C. niretzat osasunak lau hanka ditu: elikadura, ariketa fisikoa (mugimendua), deskantsua eta emozioen kudeaketa egokia. Lau hanketatik bat ez badago ondo, mahai hori hankamotz dago. Nire ustez, oreka egon behar da lau hanken artean. Nik animatuko nuke jendea kirola egitera eta orokorrean, osasuna zaintzera, beste hanka horiek zaintzera. Eta adina kontuan izan barik. Inoiz ez da berandu. Inbertsio bezala ikusi behar da. Denbora aldetik, egunerokotasunak jan egiten gaitu eta askotan ez dugu momentua topatzen, baina kasik obligazio modura hartu behar da. Ondo elikatzeke, kozinatzeke eta errekaduak egiteko denbora hartzen dugun moduan, kirola egiteko ere bai.



Lorea de Castro eta Elisa Labaien bidegorrian.

Jarduera fisikoaren onurak osasunean

Jarduera fisikoaren onurak nabarmendu eta hura bultzatzen duten mezuak eta ekimenak gero eta ugariagoak dira. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak dioenez, "frogatuta dago jarduera fisikoa maiztasunez egiteak kardiopatia koronarioak eta istripu zerebrobaskularrak, II motako diabetesa, hipertentsioa, koloneko minbizia, bularreko minbizia eta depresioa izateko arriskua gutxitzen dituela. Jarduera fisikoa faktore erabakigarria da energia kontsumitzeko, beraz,

ezinbestekoa, energia orekatzeke eta pisua kontrolatzeko. Egunerokoan aktibo izateak osasun hobea izaten eta hobeto sentitzen laguntzen digu". Hala ere, datuen arabera, "EAEko helduen % 30ek bakarrik egiten du osasun-egoera ona ziurtatzeko nahikoa jarduera fisiko".

Errezetan ere bai

Soraluzen, iaz, Goazen Soraluze! kirol orientazio zerbitzua abiarazi zen. Haren bitartez, Anje Eskartza kirol adituak jarduera fisiko

egiteko orientazioa ematen die herritarrei doan eta ekimenak ere antolatzen dira; esaterako, indarra, koordinazioa, oreka eta malgutasuna lantzeko tailerrean 18 lagun dute. Gainera, anbulatorioko adituekin koordinatuta, jarduera fisikoa "errezetetan" sartzen hasita daude.

Bestalde, Soraluzeko Udalak, kiroldegiko ikastaroetarako tarifa laua edo finkoa ezarri zuen 2023ko irailean. Hari esker, erabiltzaileek nahi beste ikastaro egin ahal dituzte, kuota bakarra ordainduta. Eta ekimena erantzun ona izaten ari da (ikus. kirol orriak).

Bazen behin...

ZAPATUAN MUNDUKO IPUINEN EGUNA EGINGO DA SORALUZEN

TESTUA EGOITZ UNAMUNO

Literatura zaletasunaren eta hizkuntz aniztasunaren uztarketatik sortu zen Ipuinen Eguna antolatzeko ideia: "Zergatik ez dugu antolatzen ipuinen egun bat, hainbat hizkuntzatako ipuin kontalariak gonbidatuta?". Pentsatu eta egin. Ekainean batu ziren Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartea, Udaleko Kultura Batzordea eta Udal Liburutegia eta elkarrekin prestatu dute egun osoko egitaraua. Antolatzaileen esanetan, ipuinen eta hizkuntzen "balioa aitortu" eta hauen bidez, herriko "hizkuntz komunitateen arteko hartu-emanak indartzea" du helburu ipuinen egunak.

Hainbat herrialdeetako ipuinak

Lehen edizio honetarako, hainbat herrialde eta kulturetako ipuin kontalariak gonbidatu dituzte: Alberto San Martin Burgoskoa, Nerea Mendia Katalunian bizi den plazentziatarra, Mostafa Taher jatorriz egiptoarra, Tarana Karim azerbaijandarra eta Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado eibartarrak. Ipuinak ere hainbat hizkuntzetan eskainiko dituzte: euskaraz, espainolez, katalunieraz, azerbaijaneraz eta arabieraz.

Ipuinen menua askotarikoa izango da: Txanogorritxuren historiaurreko bertsioa, animalia eta landareak



Antolatzaileak ekimena iragartzeko agerraldian. UBANE MADERA

protagonista dituzten ipuin arabiar eta azeriak, euskal mitologiako kondairak, Sioux indiarrenak eta tuneztarrenak...

Ipuinak kalean

Ipuinen egunak badu beste berezitasun bat ere, ipuinak kalean kontatuko dituzte "literatura kalera eroateko eta ikusarazteko". Horretarako, herriguneko hainbat txoko hautatu dituzte: Elizburuko iturria, Galipot eta Goikokaleta. Leku horiek egokitu egingo dituzte lasto fardoz eta belar

zakuz, ikusleak eroso egon daitezen. Euria eginez gero, berriz, B plana ere gertu dute antolatzaileek. Kasu horretan, kontaketak aterpeetara eroango dituzte: eliz atarira, Kalebarren 8ra eta Kontzejupera.

Liburutegi txokoa, azoka eta bazkaria

Ipuin kontaketez gain, goizean, 11:00etatik 14:00etara, ume zein helduentzako munduko ipuinak ikusi, irakurri, maileguan hartu edo erosteko aukera izango da Plaza Barrixan, "liburutegi txokoan" eta Iratxo eta Estankoa saltokien "ipuin azokan". Arratsaldeko 14:30ean, berriz, ipuin-bazkaria egingo dute Arriogain elkartearen. Hainbat herrialdeetako jakiak izango dira eta ipuinak kontatzeko eta entzuteko tartea ere izango da.

**LITERATURA KALERA
EROATEA ETA
IKUSARAZTEA DA
EGUNAREN
HELBURUETAKO BAT**



Tarana Karim. BERRIA

"Ipuinek beti irakasten dute zerbait"

TARANA KARIM IPUIN KONTALARIA

Txikitan familian entzun eta ikasitako ipuinak kontatzen ditu Tarana Karimek (Julfa, Azerbaijan, 1977). Bereziki gogoratzen ditu aitatak, ohean gaixo zegoela, inguruan batzen ziren lehengusu-lehengusinei kontatzen zizkien herri istorioak, azerbaijaneraz. Gerora zuzenbidea ikasi zuen baina bizirik eutsi dio haurtzaroko zaletasunari. Hamahiru urte dira Euskal Herrian bizi dela (Tolosan), eta ipuin kontalari jarduten du batzuetan. Zapatuan, *Azeriaren kontuak* kontatuko ditu Soraluzen, Munduko Ipuinen Egunean.

Noiz hasi zinen ipuinak kontatzen?

Ipuinak publikoaren aurrean kontatzen Euskal Herrian hasi nintzen. Aurretik ere banuen liburuak irakurtzeko ohitura, izan ere, aitona irakaslea

nuen, eskolako zuzendaria eta beti animatzen gintuen irakurtzera. Tolosan urtero jardunaldi batzuk egiten dira eta kanpotik etorritako jendea gonbidatzen dute, beste kultura batzuk ezagutzeko. 2011. urtea izango zen publiko aurrean kontatu nuen lehen aldia, ipuina euskarara itzulita eta orduan nekien euskararekin... Han abiatu nintzen eta orain, batean edo bestean, urtero izaten dut ipuin-kontaktaren bat.

Alde batetik, hemen bizi naizenez, ipuinak kontatuta gure ahozko kulturaren eta literaturaren zati bat elkarbanatzen dut, gure pertsonaiak, balioak, historia... Jendeak interes handiz jarraitzen du eta niretzat garrantzitsua da. Gustatzen zait gure ipuinak kontatzea eta besteenak ezagutzea.

Lehengo ipuinak ala gaur egunekoak kontatzen dituzu?

Lehengoak, tradiziozkoak. Pertsonaiak izaten dira errege edo erreginak edo hitz egiten duten landareak, animaliak... Lehengo gizartean ez zekiten irakurtzen eta dena transmititzen zen ahoz aho, aitona-amonengandik txikiengana, historia eta baloreak. Istorio hauek beti transmititzen dute mezuren bat eta hori garrantzitsua da.

Zer iruditzen zaizu ipuinak kalean kontatzea?

Inportantea da, bereziki txikiengana. Liburuek garrantzi handia dute pertsona baten bizitzan eta irakurketa urte osoan bultzatu behar den arren, ondo dago ospatzeko egun bat izatea, kalean, ikusaraztea, interesa piztea kultura ezberdinen artean.

Zuk Azerien kontuak ipuina kontatuko duzu?

Ipuin bat baino gehiago izango dira, astiaren arabera. Ni azeria naiz [Azerbaijango kultura] eta horregatik ipini diot izena *Azerien kontuak*.

Zer esango zenioke zapatuan entzutera joateko dudatan dagoen pertsona helduari?

Ipuinek beti irakasten dute zerbait, are gehiago kultura ezberdinetakoak badira eta ikasteko ez dago adinik. Eman aukera bat zure buruari edo umeari ikasteko.

"TRADIZIOZKO IPUINAK KONTATZEN DITUT. BETI TRANSMITITZEN DUTE MEZUREN BAT."

Ipuin kontaketak



Paleocaperucita Ocre en Atapuerca

ALBERTO SAN MARTÍN
BURGOS

Umeek eta familiek historiaurrean sua zela egiten zen edo silexa


zela lantzen zuten ikusi eta esperimintatzeko aukera izango dute Txanogorritxu berezi baten eskutik; izan ere, Paleocaperucita Ocre neandertalen klanekoa da eta froga batzuk gairitu beharko ditu bere amama txamanaren kobazulora heltzeko.

Ordua: 11:00.

Hizkuntza: Gaztelaraz.

Lekua: Eliza ostean (iturrian). Eguraldi txarra bada Kalebarren 8an.

Adin gomendagarria: 5-12 urte arteko haurrak eta familiak.



Manera de parlar

NEREA MENDIA ELGETA
SORALUZE ETA KATALUNIA

Hitzen ostean ezkututzen denaren berri emanez, mundua ulertzeko giltzak

erakutsiko dira, perkusioa eta kantua lagun hartuta. Proposamen honetan kondairak eta euskara uztartzen dira kataluniar lurraldearekin.

Ordua: 12:00.

Hizkuntza: Katalanez eta euskaraz.

Lekua: Galipot. Eguraldi txarra bada eliz atarian.

Adin gomendagarria: 3 urtetik gorako haurrak eta familiak.



Mundu arabiarreko ipuinak

MOSTAFA TAHER
MAHMOUD EGIPTO

Kirikixo, txakal, asto, txantxangorri eta beste lagun askoren ipuin

laburrak kontatuko dira, barregarriak batzuk,

bizitzarako ikasgaiak dituztenak beste batzuk, baita basamortuko harea haizetan dakarten kontakizunak ere.

Ordua: 13:00.

Hizkuntza: Arabieraz eta euskaraz.

Lekua: Goikokaleta (autoeskola). Eguraldi txarra bada Kalebarren 8an.

Adin gomendagarria: 6-10 urte arteko haurrak eta familiak.



Azeriaren kontuak

TARANA KARIM
AZERBAIJAN

Azerbaijango ipuin klasikoak izango dira sioaren oinarri; gizarteko kideen artean, familian,

harremanetan garrantzitsuak diren eta zaintzekoak diren baloreak landuko dira ipuinen bidez. Pertsonak, animaliak, landareak... izango dira protagonista.

Ordua: 17:00.

Hizkuntza: Azeri hizkuntzan eta euskaraz.

Lekua: Galipot. Eguraldi txarra bada eliz atarian.

Adin gomendagarria: publiko osoarentzat.



Bertoko eta urrutiko ipuinak

NEREA ARIZNABARRETA
ETA MARIANO HURTADO
EIBAR

Emanaldi musikatua izango da, kantuz eta

kontrabaxuz lagunduriko kontaketa, hainbat kulturaren usainak eta zapoak ekarriko dituena. Maitasunaz, konfidantzaz eta biziraupenaz arituko dira, besteak beste, eta Sioux indiarrek, tuneztarrak eta euskal herritarrek gehiago ezagutzeko aukera izango da.

Ordua: 18:00.

Hizkuntza: Euskaraz.

Lekua: Eliza ostean (iturrian). Eguraldi txarra bada Kontzejupean.

Adin gomendagarria: 5-10 urte arteko haurrak eta familiak.

Inoizko bazkide gehien

HIRU HERRITARRETATIK BAT KIROLDEGIKO BAZKIDEA DA

TESTUA ETA ARGAZKIA ANDER GOMEZ

Kirola edo jarduera fisikoa egiteko ohiturak gora egin du herrian, bai behintzat kiroldegiko bazkide kopuruak, inoizko kopuruik handiena gainditu baitu aurten. Mila bazkideko langa pasatuta hasi zuen urtea kiroldegiak eta hilabeteak pasatu ahala herritar gehiago egin dira bazkide. Momentu honetan, Soraluzen bizi diren 3700 herritar ingurutik, 1073 daude kiroldegian inskribatuta, biztanleriaren %29a, hirutik bat.

Gazteak eta gizonezkoak gehixeago

Generoari erreparatuaz gero, datuek erakusten dute emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua ia parekoa dela: 498 dira emakumezkoak (%46) eta zertxobait gehiago gizonezkoak, 575 (%54). Datuek erakusten dute adinean gora egin ahala emakumezkoen portzentaia handiagoa dela. Hona datuak: 20 urtetik beherakoak 293 dira (%27) eta 20-39 urte bitartekoak beste hainbeste, 298 (%27). Bi adin tarte horietan, gizonezkoak dira gehiago ia 17 puntuko aldearekin; berrogei urtetik gorakoak 348 dira (%37) eta oso gutxigatik bada ere, adin tarte horretan emakumezkoak gehiago dira, hiru puntuko aldearekin; 60-79 adin tartean, pertsona kopurua nabarmen jaisten da. Guztira,



Gimnasioa da kiroldegian gehien erabiltzen den gunea. ANDER GOMEZ

130 pertsona dira bazkide (%12) eta adin tarte horretan ere emakumezkoak dira gehiago, 11 puntuko aldearekin; azkenik, 80 urtetik gorakoak lau dira, bi gizon eta bi emakume, pareko, beraz.

TARIFA FINKOA MARTXAN JARRI ZENETIK, IA BIKOIZTU EGIN DA IZEN-EMATEA IKASTAROETAN

Tarifa finkoa ikastaroetan

Ikastaroetan izena eman duen jende kopurua ere nabarmen hazi da iaztik. Iazko irailean, 111 pertsona zeuden apuntatuta kiroldegiak eskaintzen zituen ikastaroetan. Ostera, 2023ko urrian, matrikulatzeko sistema aldatu zen eta tarifa finkoa ezarri. Sistema berriak, ikastaro bakarrera inskribatutakoei, kuota bakarra ordainduta gainontzeko ikastaroetarako sarbidea eskaini zien, eta, harrezkero, matrikulak ia



Soraluze 2021. urtetik eta programara atxikitutako beste edozein kiroldegitako instalazioak doan erabiltzeko aukera ematen zaie Soraluzeko kiroldegiko bazkideei —eta alderantziz— Mugiment Kirol Txartela baliatuta.

Kasu honetan ere, datu positiboak jaso dira: 2024. urtean zehar, inguruko kiroldegietatik etorritako abonatuak 751 sarrera erregistratu dira Aranen; gehienak, kanpoan bizi baina Soraluzen lan egiten dutenak. Era berean, kanpoko instalazioak bisitatu dituzte plazentziatarrek eta, momentuz, 1.244 erabilerak egin dituzte beste herrietan. EAEko 179 kirol instalaziorako sarbidea badute ere, gehienak gertuko kiroldegietan izan dira: Eibarren, Elgoibarren eta Bergaran.

Fitness aholkularitza *stand by*-n

Bada erabiltzaile gutxi izan dituen zerbitzurik ere, esaterako, Fitness Aholkularitza kasu. 2022an ezarri zen lehen aldiz, gimnasioko makinak erabiltzen ikasteko laguntza zerbitzua baina 2024an izan duen erabiltzaile kopuru txikia dela eta, "oraingoz", *stand by* lagatzea erabaki dute, asmoa "berriz martxan ipintzea" bada ere, zerbitzua herritarrentzat "benetan onuragarria" izan daitekeela uste baitute.

bikoiztu egin dira. Gaur egun, 206 pertsona daude matrikulatuta ikastaroren batean.

Gorakada horrek eskaintza handitzeko aukera eman zion kiroldegia eta 4 ikastaro gehitu

zituzten. Orain, hamaika ikastaroren artean aukeratu daiteke: Zunba, pilates, fit boxing, gap-bosu, hipopresiboak, igeriketa, igeriketa hastapena, 3. adina, multifitness, cross training eta aquagym. Ikastaroetan emakumezkoak nabarmen gehiago dira: %79.

Bazkide trukea inguruko kiroldegiekin

Jaurilaritzak eta Foru Aldundiak sustatutako "Mugiment" programaren baitan dago

KANPORA DOAZENEK EIBAR, ELGOIBAR ETA BERGARAKO KIROL GUNEETARA JO OHI DUTE

Errepikatzeko modukoa

ARISTIREN ETA BARRUTIABENGOAREN LEHEN ERAKUSKETA PERTSONALA

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA ZANGITU

Bihar, zapatua, erretiratuak dituzte *Garapena* erakusketa osatu duten obrak, Juan Martin Aristi (Soraluze, 1948) eta Ramon Barrutiabengoa (Soraluze, 1949) soraluzetarrenak. Irailaren 16an ireki zuten erakusketa, ikusle askorekin. Biendako lehen erakusketa pertsonala izan da, eta, oso pozik daude esperientziarekin. "Zuri gustatzen zaizu ipintzen duzuna, baina ez dakizu jendeak ze iritzi izango duen eta orain arte jasotako iritziak oso onak izan dira", dio Ramon Barrutiabengoak.

Juan Martin Aristi bat dator. "Esan didade oso polita, oso atsegina dela eta baita ez zekitela margotzen nuenik ere. Hainbatek sorpresa hartu du horrekin. Noski, gustatzen zaizu besteei ere gustatzea. Badakigu erakusketara etorri direla margotzen duten pertsonak ere eta interesa dut haiei iritzia galdetzeko".

Margolan asko

Emaizta ikusita, biek diote gustura ipiniko luketela beste erakusketa bat. Materiala soberan dute, Aristik "erakusketa gela birritan betetzeko beste obra", Barrutiabengoak, berriz, ez

horrenbeste, "baina beste erakusketa bat egiteko beste bai".

Erretiroarekin bat

Juan Martin Aristi zein Ramon Barrutiabengoa erretiroa hartzeaz bat hasi ziren lehenagotik ere zaletasuna zuten margolaritza lantzen. Aristi orain dela 11 urte: "Olioarekin hasi nintzen eta orain akrilikoekin margotzen dut, erosotasunarengatik eta garbitasunarengatik. Olioan, denbora gehiago behar da sikatzeko, bigarren kapa emateko, pintzelen garbiketa oso garrantzitsua da koloreak nahas ez daitezen... akrilikoa oso



Ramon Barrutiabengoa eta Juan Martin Aristi margolariak euren maisu Juanjo Altuna erdian dutela, erakusketaren inaugurazioan.

BI ARTISTAK ASTERO JOATEN DIRA JUANJO ALTUNA MARGOLARIAK BERGARAN DUEN ESTUDIORA

erraza da urarekin garbitzeko eta horregatik pauso hori".

Barrutiabengoak, berriz, orain dela 8 urte berreskuratu zuen pintura: "Ez daukat abstrakturako eboluzio hori, baina ahal dudana egiten dut. Olioiz margotzen dut. Horrela hasi nintzen, eroso nago eta ez dut pentsatzen aldatzerik".

Altuna margolariarengana

Bi artistak astero joaten dira Juanjo Altuna Akizu margolariak Bergaran duen estudioa. Aristi astean birritan, hiruna ordu bakoitzean eta Barrutiabengoa, berriz, astean behin hiru orduz. Arrasatear margolariarengandik "orientazioa" jasotzen dute eta harekin eta beste bospasei lagunekin, estudioa partekatzen dute. "Oso giro ona izaten da. Aproposa margotzeko. Altuna profesionala da, galduta zaudenean orientatu egin zaitzake eta gainerakoen artean ere giro ona dugu", Aristiren esanetan. "Gustura gaude; batzuetan ez da ezer irteten eta beste batzuetan, ba zelako ondo! Eta etxera gustura. Pintxo potea ere egiten dugu.", gaineratu du Barrutiabengoak.



Juan Martin Aristi bere margolanetako batzuk atzean dituela.



Ramon Barrutiabengoa bere margolanetako batzuk atzean dituela.


ZORION AGURRAK



Julen Aristi Sánchez
Irailaren 5ean, 6 urte.
Zorionak bixito! Oso ondo ospatuko dugu zeure urtebetetzea! Jarraitu geure bizitzak alaitzen! Muxu pila bat etxekoan partez.



Markel Atxotegi Arruabarrena
Irailaren 17an, 5 urte.
Zorionak txapeldun! Segi beti bezain jator eta alai. Besarkada haundi bat etxeko guztien partez.




Oinatz eta Eire Beretxinaga Heriz
Irailaren 4 eta 23an, 13 eta 9 urte.
Zorionak bikote!! Bizi alai!! Patxo handi bana etxekuen partez.



Libe Elortza Ugalde
Abuztuaren 5ean, 9 urte. Zorionak Libe! Segi beti bezain alai eta maitagarria izaten! Patxo haundi bat etxeko danon partez!



Oinatz Caballero Ruiz
Abuztuaren 29an jaio zen.



Ander Pastoriza
Irailaren 21ean, 20 urte. Zorionak artista! Segi jendea pozten zure artearekin! Lagunak.



Jokin Muñoz Olazabal
Irailaren 25ean 36 urte. Zorionak aitaxo. Izugarri maitxe zaitxugu. Sara eta Julen.



Sara eta Maren Aldazabal Castillo
Abuztuaren 21ean eta irailaren 25an, 7 eta 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



Maren Agirre Aizpitarte
Abuztuaren 14an, 13 urte. Zorionak Maren!!!

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Filomena Reguilon Fradejas
Serafina Yauri Rojas
Ramon Jesus Bermudez Arteche
Maria Isabel Zabaleta Gallastegi
Felix Telleria Oregi
Moises Altuna Aranburu
Begoña Ariznabarreta Aizpiri
Jaiotakoak
Denisa Grancea
June Echeverria Cid
Oinatz Caballero Ruiz



Iñaki Larrañaga Macias
Irailaren 7an, 57 urte. Zorionak Iñaki!!!



Itziar Agirre Arrizabalaga
Abuztuaren 15ean, 51 urte. Zorionak Itzi!!!



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Fincas
Euskadiko Finika Administrazioaleen Lurralde Kontseia



ROSA Mª PINTADO

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna
Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai
eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzen-
bidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko jabeak batek estalkiaren zati bat erabiltzen du. Konponketa batzuk egin behar ditugu eta jakin nahi nuke nork ordaindu behar dituen konponketa horiek.

Lehenik eta behin, begiratu behar da erregistroko dokumentazioan badagoen ezer zehaztuta erabilera pribatiboko elementu komunetan egin beharreko konponketei buruz. Ezer ez badago, jurisprudentziak dio elementua mantentzea eta zaintzea erabilera esleitura duen jabeari dagokiola baina egiturazko akatsengatik egin beharreko konponketak komunitateak hartu behar dituela bere gain. Hori horrela izanik ere, komunitateak jabeakidearen aurka egin dezake baldin eta kalteak elementu komunak modu desegokian erabiltzeak eragin baldin baditu. Horrela, bada, komunitateari dagokio komunitatearen jabetzakoa den estalkia isolatzeko lanak egitea, erabilera pribatibokoa izan arren. Eta, gauza bera, erabilera pribatibokoa baina jabetza komunitariokoa den terraza-estalkiaren isolamentuaren egoera txarrak filtrazioak eragiten dituenean, komunitatearena da konpontzeko ardua.

ONDORIOA: Erabilera pribatiboa baina jabetza komunitarioa duten terraza eta patioa konpontzeko gastuak jabe guztiek hartu behar dituzte euren gain, betiere eraikinaren egiturazko edo segurtasun-baldintzei eragiten badiete.



**ASESORIA
GOAR**

AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

OHARRAK

Kinto bazkaria

1969an jaio takeok kintada egingo dute urriaren 19an Txurrukan. Izena emateko, 50 euroko. Ordainketa egin behar da honako kontu korrontean: ES1130350004980041064728. Urriaren 8ra arteko epea dago horretarako. Edozein zalantza, deitu: 679 76 34 02.

Eskola partikularra

Lehen Hezkuntzako irakasleak klase partikularrak eskaintzen ditu. Bakarka zein talde txikitan. Kontaktuan jartzeko deitu ondoko telefonora, 663400919, Ana

Lan eskaria

Etxeko lanetan zein garbiketetan esperientzia duen emakumea naiz eta lan bila nabil. Nahi izanez gero, deitu telefono honetara, 663400919, Ana

ESKELAK

ESKELA

Moises Altuna Aranburu

Kontxi Eguren Uriarteren alarguna

2024ko uztailaren 30ean hil zen, 80 urte zituela.



Naturak zure gorputzarekin ahal izan du, baina ez gudan utzi duzun oroimenarekin.
"Lurrak goxo har zaitzala".

Plazentzian Kantuan.

ESKELA

Ramon Bermudez Arteche

2024ko abuztuaren 21ean hil zen, 72 urte zituela.



"Hitz gutxiarekin eginaren bidez beti laguntzen, betiko gure eredu, mendi tontorrean itxaron gaitzazu"

Eskerrik asko gure onduan egon zareten danori.

Senideak.

ESKELA



Begoña Ariznabarreta Aizpiri

Soraluzen hil zen uztailaren 29an, 94 urte zituela.



Gure bihotzetan izango zara beti!

Argateburuko sendia

Antzerki garaia

Tiempo de teatro



LOS MONÓLOGOS DE LA VAGINA

Txalo Produksioak

EGUNA / DÍA

Urriak 18, ostirala - 18 de octubre, viernes

ORDUA / HORA

20:00

HIZKUNTZA / IDIOMA

Gaztelera - Castellano

SARRERA / ENTRADA

10 €



DANTZAN Ene Kantak

Haur antzerkia / Teatro infantil

EGUNA / DÍA

Urriak 27, igandea - 27 de octubre

ORDUA / HORA

17:00

HIZKUNTZA / IDIOMA

Euskara

SARRERA / ENTRADA

3 €



TUTUM PLATZ Txalo Produksioak

EGUNA

Azaroak 15, ostirala

ORDUA

20:00

HIZKUNTZA

Euskara

SARRERA

5 €



AI GURE JUANETEA! Tartean Teatroa

EGUNA

Abenduak 13, ostirala

ORDUA

20:00

HIZKUNTZA

Euskara

SARRERA

10 €

SARRERAK
Aldez aurreko
salmenta bidez
plataforman edo
liburutegian
Egunean bertan
bartzeldegian



**SORALUZKO
UDALA**
Kultura Bazardea

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Nafarroa, Nafarroa Beherea
eta Nafarroa Garaia



**ORAIN
KULTURA**